

2012-01-24ko UDALBATZA EZOHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko urtarrilaren hogeita lauan, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal-taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola, eta Josu Yurrita Loitegui..

-EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

2011-ko 165 zenbakitik 180 zenbakira bitartekoak.

BIGARREN GAIA

AURREKO AKTEN ONARPENA (2011-11-29; 2011-12-20).

2011ko azaroaren 29ko, eta 2011ko abenduaren 20ko ezohiko saioen akten zirriborroak aurkeztu dira, eta aho batez onartu dira aipatutako aktak.

HIRUGARREN GAIA

ALKATETZAREN 11-12-20KO 174/11 ZK. DUEN DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatearen 174/11 zk. duen 2011ko abenduaren 20ko dekretuaren berri eman da:

“Kultura eta euskara batzordeak aztertu dituela 2011 urtean diru-laguntza eskatu duten erakundeak, bai irakaskuntza mundukoak, bai euskalgintzakoak eta bai hedabideak.

Kultura eta euskara batzordearen proposamena ikusi ondoren, hauxe

ERABAKI DUT:

Lehena.- Honako diru-laguntza hauek ematea eta ordaintzea:

IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEAK	DIRU- LAGUNTZA
Ibilaldia 2011	195 €
Araba Euskaraz 2011	195 €
Kilometroak 2011	195 €
Nafarroa Oinez 2011	195 €
Herri Urrats 2011	285 €
	1.065 €
EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEAK	DIRU- LAGUNTZA
Kontseilua	300 €
	300 €
HEDABIDEAK	DIRU- LAGUNTZA
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	4.260 €

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	4.260 €
Txolarre Irratia	2.130 €
	7.390 €

Bigarrena.- Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren eta Txolarre Irratiaren kasuan, udalak bakoitzarekin hitzarmena sinatuta duela kontuan izanik, dagozkien agiri guztiak aurkeztea hitzarmenean ezarrita dagoen moduan.

Laugarrena.- Erakunde guztiei dagokien jakinarazpena bidaltzea.

Bosgarrena.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri eman eta berrespena jasotzea.

Udalbatzak aho batez berresten du.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

“FRANKISMO ETA TRANTSIZIOA TOLOSA INGURUAN” LIBURUA BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

2011ko abenduan Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak argitaratu duen “Frankismo eta Trantsizioa, Tolosaldean eta Leitzaldean” liburua burutzeko, Irurako udalari 1.000€ko diru-laguntza eskatu zaio.

Udalbatzak aho batez hau onartu du:

Lehenengoa.-Diru-laguntza hori onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntza ordaindu baino lehen, erantsitako aitorpena aurkeztu beharko du, diru-laguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantzaren 3. artikulua dioenaren arabera. Gainera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

-Gipuzkoako Foru Aldundian zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatuko duen agiria.

-Banketxe edo aurrezki-kutxa batek egindako agiria, kontu baten titularra dela egiaztatuko duena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

GIPUZKOAKO KUTXA ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKORDIOARI BURUZ MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluaren akordioen (akordio hauetan Kutxabank entitate berriaren ordezkari berria erabaki zen. Ondorioz Gipuzkoako Kutxari zegokion ordezkariaren murrizketa etorri zen, gipuzkoar guztion ordezkariaren murrizketa, alegia.) ondoren, udal-talde honek honako MOZIO hau aurkezten du, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Hartutako erabakia gaitzestea, Administrazio Kontseilua bi indar politikoren artean bakarrik osatzearena, alegia, gainerako alderdi politikoak bazterrean utziz. Horrela, erabaki hau hartu dutenek Kutxabank entitatea erabat kontrola dezakete modu baztertzailan.

2.- Kutxabank osatzeko lortu zen adostasun hura mantentzea eskatzea, hiru Kutxetako Biltzarretan oso babestua izan zena. Adostasun horrek euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren ordezkari anitz, adierazgarri eta proportzionala bideratzen zuen, Kutxabank izan dadin gizartearen eta Herri honen zerbitzura egongo den entitate bat.

3.- Kutxabank entitate berrian Kutxak duen ordezkari errespetatzea exijitzea, joan den iraileko Kutxen Biltzarrean adostu eta onartutako parametroetan. Beraz, ez onartzea Kutxaren, Gipuzkoarren eta Gipuzkoarren kalterako izango den ordezkari-murrizketa.”

Udalbatzak onartu du, Bilduko zinegotzien aldeko 8 botorekin eta EAJko zinegotziaren aurkako botoarekin.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du.

SEIGARREN GAIA

UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbiltza partzuergoko Estatutuek agindu bezala, kide diren udalek bere ordezkaria izendatu behar dute Kontseilu Nagusian parte har dezan.

Hori ikusita udalbatzak hau onartzen du, Bilduko zinegotzien aldeko 8 botorekin eta EAJko zinegotziaren abstentzioarekin:

-Irurako Udalaren Ordezkaria: Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Alkatea).

-Ordezkoa: Noelia Lataburu Ortiz (Zinegotzia).

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du.

ZAZPIGARREN GAIA

2012KO LANGILEEN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honetako langileen lan-egutegiaren proposamena aurkeztu da, honako lan-arloetakoak:

-Bulego orokorrak.

-Obra eta zerbitzuen brigada.

-Kultura.

-Euskara zerbitzua.

-Gizarte zerbitzuak.

Beraz, Udalbatzak honakoa erabaki du aho batez:

Aurkeztutako egutegiak onartzea, Kultura zerbitzuarena izan ezik; azken hau dagokion batzorde informatzailean eztabaidatu behar da aldez aurretik. Irizpide orokor hauek ere onartzea erabaki du Udalbatzak:

-Urteko lanaldiak 1.592 ordu izango ditu, dedikazio partziala duten langileentzat izan ezik. Azken hauei dagokien murrizketa partziala egingo zaie. Aipatutako ordu-kopurua baino txikiagoa azaltzen den egutegien kasuan, guztizko kopurura iritsi arteko gainerako orduak bilerekin, aparteko orduekin... osatuko dira.

-Egutegia aurkeztu ez dutenek bulego orokorreko egutegia hartuko dute erreferentzia gisa.

-Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.

-Jaiegun ofizialak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak: 14.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK. Ez da ezer aurkeztu.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena **EGIAZTATZEN** dut.

ALKATEA

IDAZKARIA